

ISTRIPUEN KOSTUARI BURUZKO AZTERLANA



OSALAN

Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea
Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales

Erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA

Justizia, Lan eta
Gizarte Segurantzaren Saila



GOBIERNO VASCO

Departamento de Justicia,
Empleo y Seguridad Social

Argitaraldia:	2005ko maiatza
Ale-kopurua:	300
©	Osalan. Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea Dinamita bidea, z/g, 48903 Gurutzeta-Barakaldo (Bizkaia)
Internet:	www.osalan.net
Argitaratzailea:	Osalan. Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea Dinamita bidea, z/g, 48903 Gurutzeta-Barakaldo (Bizkaia)
Egileak:	M ^a Nieves de la Peña Loroño Mercedes Fernández Simancas
Azala marraztea eta fotokonposaketa:	Fotomecánica GARBER General Concha, 25 - 4 ^a planta 48010 Bilbao
Inprimaketa:	Alava Soluciones Gráficas, S.L. San Blas, 11 - edif. D 01170 Legutiano - Alava
L.G.:	Vi-214/05

AURKIBIDEA

AURKEZPENA	5
1. HITZAURREA	7
2. METODOLOGIA.....	7
3. PROZEDURA.....	8
4. ONDORIOEN LABURPENA	17
I. ERANSKINA	33
II. ERANSKINA.....	37
III. ERANSKINA.....	41



AURKEZPENA

2003. urtean ideia bat sortu zen OSALANen: laneko ezbehar-tasaren ondorio ekonomikoei buruzko azterlan bat egitekoa, hain zuzen. Lanaren eremuan arriskuen prebentzio faltak, lan-istripuen eta gaixotasun profesionalen kostua izateaz gain -norbanakoari, familiei eta gizarteari dakarzkien ondorioekin batera- badauka ere oihartzun ekonomikoa. Ondoren aurkezten den "Istripuen Kostuari buruzko Azterlana" egiteko, Euskal Autonomia Erkidegoan 2003.ean gertatu ziren istripu larri, oso larri eta heriotza eragindakoei buruzko datuak erabili dira. Egitasmo hau OSALANen 2004.erako Kudeaketa Planaren barruan sartzen da, eta istripu horiek enpresei ekarri dizkieten kostuak aztertu nahi ditu.

Proiektu hau interesgarria da arriskuen prebentzioan zerikusirik duten gizarte-eragile guztientzat eta, bereziki, enpresentzat eta langileentzat.

Istripuen kostuak baloratzeko egindako lan honen bidez, enpresetan prebentzio-neurri egokiak ezartzearen eragina ebaluatu ahal izango dugu eta, posible izatekotan, neurri horien errentagarritasun ekonomikoa zehaztu ahal izango dugu.

Informazio honen bidez espero dugu laguntza eman ahal izatea prebentzioaren gizarte-kontzientzia sustatzeko, ezbehar-tasa murrizteko eta lan-baldintzak hobetzeko.

Azkenik, egitasmo honetan parte hartu duten enpresei emandako laguntza eskertu nahi diet, lankidetzaz horrek posible egin duelako aurkezten dugun azterlana.

Ignacio Murguía Mañas
OSALANgo ZUZENDARI NAGUSIA



1. HITZAURREA

"Istripuen Kostuei buruzko Azterlana" izeneko proiektua Osalanen Kontseilu Nagusiak 2004. urterako onetsitako Kudeaketa Planean sartuta dago. Horren bidez 2003. urtean izandako lan-istripuek EAEko enpresei ekarri dizkieten kostuak baloratu nahi dira, gutxi gora-behera.

Bai enpresetan, bai gizartean, eragin handiena duten istripuak larriak, oso larriak eta, batez ere, heriotza eragin dutenak izaten direnez, proiektu honetako kostu-azterketak istripu horiek hartuko ditu ardatz bakartzat. Jakina, horrek ez du esan nahi istripu arinak teknikoki eta ekonomikoki ebaluatu behar ez direnik, batetik, horien arrazoiak zein diren jakin eta saihestu ahal izateko, eta bestetik, dakarten kostuaz jabetzeko.

Azterlanaren jomuga zehaztu ondoren, lan-istripuen kostuak aztertzeke inprimaki bat egin da. Enpresetan istripuak gertatzeak izan dezakeen eragin ekonomikoa kalkulatzeko balio duten datuak jasotzen dira bertan. Dena den, inprimakiak ez du balio istripuak gizartean duen kostua kalkulatzeko, hau da: familiarengan duen eragina, osasun-kostuak, ondorioak, eta abar jakiteko.

Behin inprimakia prestatuta, tartean dauden enpresen laguntza behar genuen, hain zuzen ere, 2003. urtean istripu larriak, oso larriak eta heriotza eragin dutenak izan dituztenak. Izan ere, beraiek dakite inork baino hobeto istripuek instalazioetan, produkzioetan eta abarretan eragindako kostuak zein diren. Horrexegatik, aipatutako enpresei inprimaki hori bidali zitzairen eta horrekin batera gutun bat, non proiektu hau eta bere helburua azaltzeaz gain, euren laguntza eskatzen zen, proiektua aurrera eraman ahal izateko.

Istripuen kostuen azterlan honetan, aztergai dugun istripua berriro ez gertatzeko prebentzio-neurri zuzentzaileen balorazioa egin da. Horrela, laneko arriskuei aurrea hartzeko politika on batzuk ezartzeak duen eragin ekonomikoa haztatu ahal izango dute enpresek, azken xedea lan-baldintzak hobetzea eta laneko ezbeharren tasa murriztea izanik. Izan ere, baliabide honi esker, istripu eta gaixotasunen kostu osoaren ikuspegi errealista izateaz gainera, prebentzioak dakartzan onurez jabetu ahal izango dira.

2. METODOLOGIA

Azterlanerako datu ekonomiko asko behar direnez, lagundu nahi duten enpresen lana erraztuko lukeen inprimakia egitea erabaki zen. Horiek horrela, inprimakia bost ataletan egituratu da:

1. Gertakariari buruzko datuak: Gertakaria deskribatzen duten datuak. Halaber, baja-egunak eta ezintasun iraunkor mota (hala badagokio) adierazi behar da.
2. Langile-kostua: Ordaindu den baina lan egin ez den lan-denbora dela-eta, sortutako langile-gastuak, bai istripu-egunean istripua izan duen langileak berak eragindakoak, bai egun horretan eta ondorengoetan haren lankide, nagusi eta abarrek eragindakoak. Horrez gain, Aldi Baterako Ezintasunarengatik ematen diren prestaziorako borondatezko hobekuntzak barne hartzen dira (enpresak baldin baditu), eta bai langilea baja dagoen egunen Gizarte Segurantzako kotizazioak ere (enpresak ordaindu beharrekoak).
3. Kalte materialen kostua: Konponketa-gastuak, bai eraikin eta instalazioenak, bai makineria, lan-tresna eta ekipoenak. Lehengai eta ekoizpen galerak ere barne hartu dira, eta baita ere produkzioari eusteko egindako kontratazio berriei eta ordu gehigarriei loturiko gastuak, besteak beste.



4. Prebentzioaren kostuak: Istripuaren ondoren, berau berriro gerta ez dadin enpresak ezarritako neurrien kostua.
5. Bestelako kostuak: Aseguruek estaltzen ez dituzten kostuak: defentsa juridikoa, erantzukizun zibila, penala edo bestelakoa. Beste hauek ere sartzen dira: produkzioan izandako atzerapenak direla-eta eskariak berandu entregatzearen ondoriozko zigorak, irudi ona galtzeagatik bezeroak ere galtzea, istripuaren ondoriozko grebak eta sindikatuen aldarrikapenak...

Hitzaurrean esan dugun bezala, inprimaki honetan ez dira istripuen kostu sozialak barne hartuko; izan ere, ezinezkoa da enpresek datu horiek ematea eta, gainera, baloratzeko oso zailak diren kostuak dira.

3. PROZEDURA

2003. urtean Euskal Autonomia Erkidegoan izandako istripu larrien, oso larrien eta heriotza eragindakoen kostuen azterlana egiteko beharrezkoa zen lehenik eta behin istripu horiek gertatu zireneko enpresak zein diren jakitea eta baita tartean izandako langileen izenak ere.

2003. urtean izandako Lan Istripuen Tasari buruzko Estatistika Laburpenaren arabera, heriotza eragindako 105 istripu eta 525 istripu larri eta oso larri izan ziren EAEn. Parteari jarraiki, "in itinere" edo lanerako bidean gertaturiko istripu guztiak eta "traumatikoak ez" ziren zenbait kendu ondoren, 435 istripu gertatzen zaizkigu (larriak, oso larriak eta heriotza eragin dutenak direnak). Eta istripu horiek autonomia-erkidego honetako 405 lantoki edo enpresatan gertatu ziren.

Hortaz, aztergai izango diren istripuak zehaztu ondoren, enpresa horietara inprimakiak bidali dira. 161 enpresek erantzun duten arren (% 39,75), azterketa egiteko soilik 141 erantzunek balio izan dute (hots, % 34,81) eta erantzun horiek 149 istripuri dagozkie, % 34,25ari, alegia.

Ondorengo Taulan izandako istripu-kopurua eta jasotako erantzunak (istripu kopurutan) adierazten dira, lurralde historikoen arabera banatuta.

	ISTRIPU KOP.	ERANTZUN KOP.	ERANTZUNEN %
ARABA	74	23	31,08%
BIZKAIA	213	77	36,15%
GIPUZKOA	148	40	33,11%
GUZTIRA	435	149	34,25%



Erantzunak istripu motaren arabera (hots, alde batetik, larriak edo oso larriak eta, bestetik, heriotza eragin dutenak) sailkatzen baditugu, ondorengo taulan ikusiko dugu enpresen partaidetza zein izan den.

	ISTRIPU KOP.		ERANTZUN KOP.		ERANTZUNEN %	
	Larriak eta oso larriak	Heriotza eragin	Larriak eta oso larriak	Heriotza eragin	Larriak eta oso larriak	Heriotza eragin
ARABA	67	7	17	6	25,37%	85,71%
BIZKAIA	182	31	66	11	36,26%	35,48%
GIPUZKOA	125	23	38	11	30,40%	47,83%
GUZTIRA	374	61	121	28	32,35%	45,90%

1-5 Taula eta Irudietan aztergai ditugun istripuen banaketa ikusiko dugu. Aipatutako banaketa hainbat faktoreren arabera egin da, hala nola istripua izandako langileen antzinatasuna, jarduera, lan-kontratua, sexua eta, azkenik, istripua izandako hilabetea.

1. Taula. ISTRIPU KOP., ANTZINATASUNAREN ARABERA

ISTRIPUA izandakoaren antzinatasuna	ISTRIPU KOP.	
< EGUN 1	6	1,38%
> EGUN 1 ≤ HILAB. 1	41	9,43%
>HILAB. 1 ≤ 3 HILAB.	41	9,43%
>3 HILAB. ≤ 6 HILAB.	41	9,43%
>6 HILAB. ≤ URTE 1	42	9,66%
≤ URTE 1	171	39,31%
>URTE 1 ≤ 3 URTE	67	15,40%
>3 URTE ≤ 5 URTE	36	8,28%
>5 URTE ≤ 10 URTE	51	11,72%
>10 URTE ≤ 20 URTE	63	14,48%
>20 URTE ≤ 30 URTE	25	5,75%
>30 URTE ≤ 40 URTE	14	3,22%
> 40 URTE	8	1,84%
GUZTIRA	435	100,00%

**2. Taula. ISTRIPU KOP., KONTRATU MOTAREN ARABERA**

ISTRIPUA IZANDAKOAREN KONTRATU MOTA	ISTRIPU KOP.	% GUZTIRA
100.. Lanaldi osoko kontratu mugagabea	217	49,89%
200.. Lanaldi partzialeko kontratu mugagabea	2	0,46%
300.. Aldizkako kontratu mugagabe finkoak	3	0,69%
400.. Iraupen jakineko kontratuak edo lanaldi osoko aldi baterakoak	166	38,16%
500.. Iraupen jakineko kontratuak edo lanaldi partzialeko aldi baterakoak	8	1,84%
ED/EE	39	8,97%
GUZTIRA	435	100,00%

3. Taula. ISTRIPU KOP., LANBIDEAREN ARABERA

ISTRIPUA IZANDAKOAREN LANBIDEA	ISTRIPU KOP.	% GUZTIRA
10..17 Enpresen administrazioa eta administrazio publikoa	3	0,69%
20..29 Teknikari eta profesional zientifikoak eta intelektualak	9	2,07%
30..35 Teknikari eta profesional laguntzaileak	19	4,37%
40..46 Administrazio-lanetan diharduten bestelako enplegatuak	4	0,92%
50..53 Ostalari. Z., Z. pertsonaletako, eta babes Z. langileak eta merkataritza sal.	35	8,05%
60..63 Nekazaritzako eta arrantzako langile gaituak	14	3,22%
70..79 Artisauak eta manufaktura industriako, eraikuntzako eta meatzaritzako langile gaituak	146	33,56%
80..86 Instalazio eta makinetako langileak, muntatzaileak	95	21,84%
90..98 Gaitu gabeko langileak	88	20,23%
Daturik gabe	22	5,06%
GUZTIRA	435	100,00%


4. Taula. ISTRIPU KOP., ISTRIPUA IZANDAKOAREN SEXUAREN ARABERA


SEXUA	ISTRIPU KOP.							
	Heriotza eragin.	%	Oso Larria	%	Larria	%	Guztira	%
Emakume	2	3,28%	2	11,11%	38	10,67%	42	9,66%
Gizon	59	96,72%	16	88,89%	318	89,33%	393	90,34%
GUZTIRA	61	100,00%	18	100,00%	356	100,00%	435	100,00%

5. Taula. ISTRIPU KOP., URTEKO HILABETEAREN ARABERA


HILABETEA	ISTRIPU KOP.				
	Larriak	Oso Larriak	Heriotza Eragin.	Guztira	% Guztira
Urtarrila	26	2	9	37	8,51%
Otsaila	41	3	6	50	11,49%
Martxoa	25	0	2	27	6,21%
Apirila	28	2	6	36	8,28%
Maiatza	35	1	10	46	10,57%
Ekaina	38	2	4	44	10,11%
Uztaila	32	2	3	37	8,51%
Abuztua	23	3	4	30	6,90%
Iraila	32	0	3	35	8,05%
Urria	30	2	7	39	8,97%
Azaroa	35	0	2	37	8,51%
Abendua	10	1	6	17	3,91%
GUZTIRA	356	18	61	435	100,00%



1. Grafikoa. ISTRIPUAK, ANTZINATASUNAREN ARABERA




2. Grafikoa. ISTRIPU KOPURUA, LANGILEAK ENPRESAN DARAMATZAN URTEEN (ANTZINATASUNA) ARABERA






3. Grafikoa. ISTRIPU EHUNEKOA, ISTRIPUA IZANDAKO LANGILEAK DAUKAN KONTRATU MOTAREN ARABERA




4. Grafikoa. ISTRIPU KOPURUA, ISTRIPUA IZANDAKOAREN SEXUAREN ARABERA






5. Grafikoa. ISTRIPU KOPURUA, URTEKO HILABETEAREN ARABERA



6. Grafikoa. ISTRIPUAK, LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA





Ondorengo tauletan jaso ditugu enpresetan izandako istripu-kopurua eta jasotako erantzunak (istripu kopurutan) faktore hauen arabera: plantillan dagoen langile-kopurua, istripua izandakoaren adina eta lesio mota.

6. Taula. ISTRIPU KOP., PLANTILLAREN ARABERA


PLANTILLA	ENPRESA KOP.	ERANTZUN DUTEN ENPRESAK	
≤10	84	26	30,95%
>10 ≤ 50	150	49	32,67%
>50 ≤100	43	18	41,86%
>100 ≤ 250	37	17	45,95%
>250 ≤ 500	22	10	45,45%
>500 ≤ 1000	15	8	53,33%
>1000 ≤ 2000	4	1	25,00%
>2000	4	1	25,00%
DATURIK GABE	46	11	23,91%
GUZTIRA	405	141	34,81%

7. Taula. . ISTRIPU KOP., ISTRIPUA IZANDAKOAREN ADINAREN ARABERA


ADINA	ENPRESAK	
	Istripu kop.	Istripu Guztien %
≤ 20 AÑOS	10	2,30%
>20 ≤ 30	76	17,47%
>30 ≤ 40	115	26,44%
>40 ≤ 50	114	26,24%
>50 ≤ 60	108	24,83%
> 60	10	2,30%
DATURIK GABE	2	0,46%
GUZTIRA	435	100,00%



7. Grafikoa. ISTRIPU KOPURUA, ENPRESAKO PLANTILLAREN ARABERA




8. Grafikoa. ISTRIPU KOPURUA, ENPRESAREN JARDUERA-SEKTOREAREN ARABERA





9. Grafikoa. ISTRIPU KOPURUA, ISTRIPUA IZANDAKO LANGILEAREN ADINAREN ARABERA



4. ONDORIOEN LABURPENA

Proiektu hau abian jartzerakoan, topatu dugun oztopo nagusia enpresaren aldetik istripuaren kostu guztiak kalkulatzeko izan da. Kalkulua egiteak kudeaketa-ahalmen handia eskatzen du, istripuarekin zerikusia duten datuak jasotzeko eta inprimakia behar bezala betetzeko.

Laneko Arriskuen Prebentziorako Legeak lan-istripu oro ikertzera derrigortzen duela kontuan izanik, istripu horien zergatiak zein diren jakin ahal izateko eta, ondorioz, horiek berriro gerta ez daitezen prebentzio-neurriak ezarri ahal izateko, enpresek egindako kostu-balorazioa zuzena dela pentsatu behar dugu, datu horietako asko enpresaren baitan alderdi guztiak aintzat harturik egindako ikerketaren emaitza direlako.

Dena den, ikertutako istripuen ezaugarriak direla-eta, sarritan prozesu luzeak izaten dira, eta batez ere alderdi hauei dagokienez: baje aldia, ezarri beharreko zigorrak, erantzukizunak, kalte-ordainak, etab. Hortaz, zenbait kasutan, erantzun duten enpresa batzuek adierazi duten bezala, ezinezkoa izan da bes-telako kostuak kalkulatzeko.

Ondoren, laburpen modura, laginetik ateratako ondorio nagusiak azalduko ditugu.

Ondorioak:

2003. urtean Euskal Autonomia Erkidegoan gertatutako istripu larriak, oso larriak eta heriotza eragin dutenak ikusita, ondorio hauek atera daitezke:

- 2003an Euskal Autonomia Erkidegoan gertatutako istripu larri, oso larri eta heriotza eragindakoei dagokienez, 74 Araban izan dira (7 heriozkoak izan dira), 213 Bizkaian izan dira (31 heriozkoak) eta, azkenik, 148 Gipuzkoan (23 heriozkoak).
- Aztertutako lagineko 435 istriputuen sexua kontuan hartuz gero, 393 gizonezko eta 42 emakumezko ditugula ikusiko dugu. Datuen arabera, 2003. urtean, gizonezkoek izan dituzte heriotza eragindako 59 istripu, 16 oso larri eta 318 larri; emakumezkoek, berriz, heriotza eragindako 2, 2 oso larri eta 38 larri.



- 2003. urtean, Euskal Autonomia Erkidegoan izandako 435 istripu larri, oso larri eta heriotza eragindakoei dagokionez, enpresan urtebete edo gutxiago lanean daramaten langileek 171 istripu izan dituzte, hots, % 39,31. Enpresan urtebetetik bi urtera lanean daramaten langileek, berriz, 67 istripu izan dituzte, hots, % 15,40, eta, azkenik, hiru urtetik bost urtera daramaten langileak % 8,28 izan dira, hots, 36 istriputu. Horrek esan nahi du esperientziarik gutxien edo urtebete baino gutxiagoko esperientzia daukaten langileak direla istripu gehien izaten dutenak.
- Langileek sinatutako kontratu motari dagokionez, esan daiteke istripua izandakoen % 50ek lanaldi osoko kontratu mugagabea zeukatela eta % 38k, berriz, iraupen jakineko kontratuak edo lanaldi osoko aldi baterakoak.
- Bestalde, istripua izandakoen lanbidea kontuan izanez gero, istripu gehien izan duten lanpostuak atal honetan daudela ikusiko dugu: "Artisauak eta manufaktura industriako, eraikuntzako eta meatzaritzako langile gaituak", 146 istriputu dituela (% 33,56); Ondoren, bigarren postuan "Instalazio eta makinetako langileak, muntatzaileak" taldea dago, 95 istriputu dituela (% 21,84); eta hirugarrenik "Gaita gabeko langileak", 88 istriputu dituela, hots, guztizkoaren % 20,23.
- 2003. urtean, hilabete txarrean, bai istripu kopuruagatik bai horien larritasunarengatik, otsaila izan zen: guztira 50 istripu gertatu ziren eta horietatik 41 larriak, 3 oso larriak eta 6 heriozkoak izan ziren. Istripu gutxien izandako hilabetea, berriz, abendua izan zen. Bestalde, heriotza eragindako istripu gehien gertatutako hilabetea maiatza izan zen, 10 istripu izan zirela.
- Euskadin izandako lan-ezbeharrek eragindako kostuak aztertzerakoan, enpresetako plantilla ere faktore garrantzitsua da. Hala, 2003. urtean 435 istripu larriak, oso larriak eta heriotza eragindakoak izandako 405 enpresen istripu-parteetan adierazitakoa ikusita, hauxe ondoriozta dezakegu:
 - 1) 10 langile baino gutxiago dituzten enpresetan, 85 istripu gertatu dira, hots % 19,54.
 - 2) 10-50 langile dituzten enpresetan, berriz, 161 istripu gertatu dira, hots, % 37,01.
 - 3) 50-100 langile dituzten enpresetan, ostera, 45 istripu gertatu dira, hots, guztizkoaren % 10,34.
 - 4) 100-250 langile dituzten enpresetan, 42 istripu.
 - 5) Eta, azkenik, 250-500 langile dituzten enpresetan, 28 istripu.

PLANTILLA	ISTRIPU KOP.	% GUZTIRA
≤ 10	85	19,54%
>10 y ≤ 50	161	37,01%
>50 y ≤ 100	45	10,34%
>100 y ≤ 250	42	9,66%
>250 y ≤ 500	28	6,44%
>500 y ≤ 1000	17	3,91%
>1000 y ≤ 2000	7	1,61%
> 2000	6	1,38%
DATURIK GABE	44	10,11%
GUZTIRA	435	100,00%



- Jarduera-sektorearen araberrako analisiak emaitza interesgarriak erakusten ditu; izan ere, ehuneko-rik handiena, % 27, eraikuntzari dagokio eta % 15, berriz, Manufaktura Industriari, metalurgiar eta metalezko produktuen fabrikazioari.

JARDUERA SEKTOREA	ENPRESA KOP.	% GUZTIRA
A. Nekazaritza, abeltzaintza, ehiza eta oihezaintza	14	3,46%
B. Arrantza	9	2,22%
Cb. Beste mineral batzuen erauzketa, energia produktuak izan ezik	3	0,74%
Da. Elikagaigintza, edariak eta tabakoa	8	1,98%
Dd. Zuraren eta kortxoaren industria	7	1,73%
De. Papergintza, edizioa, arte grafikoak eta grabatutako euskarrien erreproduktzioa	6	1,48%
Dg. Industria kimikoa	1	0,25%
Dh. Kautxuaren eta plastikozko gaien eraldakuntza	3	0,74%
Di. Plastikozko ez diren bestelako produktu mineralen industriak	8	1,98%
Dj. Metalurgia eta metalezko produktuen fabrikazioa	62	15,31%
Dk. Makineriaren eta ekipo mekanikoen eraikuntza industria	22	5,43%
DI. Material eta ekipo elektrikoaren, elektronikoaren eta optikoaren industria	9	2,22%
Dm. Garraio materialaren fabrikazioa	5	1,23%
Dn. Zenbait manufaktura industria	3	0,74%
E. Energia elektrikoaren, gasaren eta uraren ekoizpena eta banaketa	4	0,99%
F. Eraikuntza	111	27,41%
G. Merkataritza, motoredun ibilgailu, motozikleta eta ziklomotoeen konponketa eta artikulua pertsonalak eta etxerako artikulak	26	6,42%
H. Ostalaritza	7	1,73%
I. Garraioa, biltegiatzea eta komunikazioak	29	7,16%
K. Higiezin-etxeen eta alojera-etxeen jarduerak; enpresa-zerbitzuak	21	5,19%
L. Administrazio publikoa, defentsa eta derrigorrezko gizarte segurantzak	18	4,44%
M. Hezkuntza	3	0,74%
N. Osasun eta albaitaritza jarduerak, gizarte zerbitzuak	10	2,47%
O. Bestelako gizarte jarduerak eta komunitateari emandako zerbitzuak; zerbitzu pertsonalak	11	2,72%
P. Etxeko langileak dituzten etxeak	2	0,49%
DATURIK GABE	3	0,74%
GUZTIRA	405	100,00%



- Istripuak aztertzerakoan garrantzitsua den beste faktore bat langileen adina da. 2003an izandako istripu larrien, oso larrien eta heriotza eragindakoen parteetatik ondoriozta daitekeenez, 115 istriputan (% 26,44) istripua izandakoaren adina 30-40 urte bitartekoa da; 114 istriputan, berriz, (% 26,24), 40-50 urte bitartekoa, eta azkenik 108 istriputan (% 24,83), 50-60 urte bitartekoa.
- Lesionatutako gorputz-adarrei dagokienez, istripu-parteetan emandako datuen arabera, gehien afektatutako gorputz-adarrak hauek dira: beheko gorputz-adarra –zangoa, belauna, ona, etab.- 90 kasutan; goiko gorputz-adarra –besoa, eskua, atzamarra(k)...- 86 kasutan; gorputz osoa, 64 kasutan; burua –garezurra, begiak, belarriak, etab.- 63 kasutan; eta enborra –saihetsak, organoak...- 43 kasutan.

Enpresek bidalitako datuak ikusita (149 istripu; horietatik 28k heriotza eragin dute eta 121 larriak eta oso larriak izan dira) eta ateratzen diren batz besteko kopuruak 2003an EAEn gertatutako istripu larri, oso larri eta heriotza eragindakoen kopuruetara estrapolatzen baditugu, ondorio hauek atera daitezke:


- Istripu larrien eta oso larrien ondorioz izandako baja-egunen batz bestekoa 160,06koa da. Lurralde Historikoen arabera: 157,29 egun Araban, 172,26 egun Bizkaian eta 140,11 egun Gipuzkoan.

LURRALDE HKO.	ISTRIPU KOP.	LESIO-MAILA	BATAZ BESTEKOA BAJA-EGUNAK
Araba	17	Larria eta oso larria	157,29
	6	Heriotza eragindakoa	1,83
GUZTIRA	23		116,74
Bizkaia	66	Larria eta oso larria	172,26
	11	Heriotza eragindakoa	1,18
GUZTIRA	77		147,82
Gipuzkoa	38	Larria eta oso larria	140,11
	11	Heriotza eragindakoa	1,00
GUZTIRA	49		108,88
GUZTIRA	121	Larria eta oso larria	160,06
	28	Heriotza eragindakoa	1,25



- Ondorengo koadroan baja-egunei buruzko datuak 2003. urtean EAEn izandako istripu larri eta oso larri guztietara estrapolatu dira.

BAJA-EGUNAK, LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA			
	Istripu kop. Larriak eta oso larriak	Baja-egunak	% Guztira
Araba	67	10.538,43	18%
Bizkaia	182	31.351,32	53%
Gipuzkoa	125	17.513,75	29%
EAE GUZTIRA	374	59.403,50	100%



- Istripu bakoitzarengatik galdutako orduen batzaz bestekoa 24,45ekoa da. Lurralde historikoen arabera kalkulatz gero: 30,32 ordu Araban; 23,51 ordu Bizkaia; eta 23,17 ordu Gipuzkoan.

LURRALDE HKO.	ISTRIPU KOP.	BATAZ BESTEKOA GALDUTAKO ORDUAK
Araba	23	30,32
Bizkaia	77	23,51
Gipuzkoa	49	23,17
GUZTIRA	149	24,45




- 2003an EAEn izandako 435 istripu larri, oso larri eta heriotza eragindakoetara estrapolatuz gero, guztira 9.629,82 ordu galdu dira.

LURRALDE HKO.	ISTRIPU KOP.	LESIO-MAILA	GALDUTAKO ORDUAK
Araba	67	Larria eta oso larria	1.067,15
	7	Heriotza eragindakoa	497,58
GUZTIRA	74		1.564,74
Bizkaia	182	Larria eta oso larria	3.556,22
	31	Heriotza eragindakoa	1.467,09
GUZTIRA	213		5.023,31
Gipuzkoa	125	Larria eta oso larria	1.833,22
	23	Heriotza eragindakoa	1.208,55
GUZTIRA	148		3.041,77
Larriak eta oso larriak, guztira	374		6.456,60
Heriotza eragin dutenak, guztira	61		3.173,22
GUZTIRA	435		9.629,82




GALDUTAKO ORDUAK LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA

ISTRIPU LARRIAK ETA OSO LARRIAK



HERIOTZA ERAGINDAKO ISTRIPUAK




- Istripu larria edo oso larria izan duten langile bakoitzeko, 10.307 euro galtzen ditu enpresak, bataz beste. Araban 7.733,55 euro; Bizkaian 10.413,37 euro; eta Gipuzkoan 11.273,52 euro.



- Heriotza eragindako istripu bakoitzeko 35.580,74 euro galtzen ditu enpresak, bataz beste.

LURRALDE HKO.	ISTRIPU KOP.	LESIO-MAILA	BATAZ BESTEKO KOSTU OSOA
Araba	17	Larria eta oso larria	7.733,55
	6	Heriotza eragindakoa	32.707,94
GUZTIRA	23		14.248,61
Bizkaia	66	Larria eta oso larria	10.413,37
	11	Heriotza eragindakoa	37.857,89
GUZTIRA	77		14.334,02
Gipuzkoa	38	Larria eta oso larria	11.273,52
	11	Heriotza eragindakoa	34.870,56
GUZTIRA	49		16.570,82
GUZTIRA	149		15.056,42
	121	Larriak eta oso larriak, guztira	10.307,00
	28	Heriotza eragin dutenak, guztira.	35.580,74

ISTRIPU BAKOITZEKO BATAZ BESTEKO GALERA






- Datuak estrapolatuz gero, lurralde historiko bakoitzaren kostu osoa hauxe izan da:

LURRALDE HKO.	ISTRIPU KOP.	LESIO-MAILA	KOSTU OSOA
Araba	67	Larria eta oso larria	518.147,77
	7	Heriotza eragindakoa	228.955,60
GUZTIRA	74		747.103,37
Bizkaia	182	Larria eta oso larria	1.895.233,73
	31	Heriotza eragindakoa	1.173.594,45
GUZTIRA	213		3.068.828,18
Gipuzkoa	125	Larria eta oso larria	1.409.190,10
	23	Heriotza eragindakoa	802.022,94
GUZTIRA	148		2.211.213,04
Larriak eta oso larriak, guztira	374		3.822.571,60
Heriotza eragin dutenak, guztira	61		2.204.573,00
GUZTIRA	435		6.027.144,60

ISTRIPU LARRI, OSO LARRI ETA HERIOTZA ERAGINDAKOEN KOSTUA, LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA






- Ondorengo tauletan analisi bera agertzen da, oraingoan beste faktore batzuk kontuan izanda: istripua izandako langileek enpresetan duten antzinatasuna, enpresako plantilla eta lan-kontratua:

ANTZINATASUNA	ISTRIPU KOP.	KOSTU OSOA
≤ urte 1	171	1.752.752,83
1-3 urte	67	938.622,81
3-5 urte	36	180.231,34
5-10 urte	51	885.316,57
10-20 urte	63	1.532.922,18
20-30 urte	25	192.215,45
30-40 urte	14	473.314,03
> 40 urte	8	71.769,40
GUZTIRA	435	6.027.144,60


ISTRIPUEN KOSTUA, LANPOSTUAN LORTURIKO ANTZINATASUNAREN ARABERA





PLANTILLA	ISTRIPU KOP.	KOSTU OSOA
≤ 10	85	579.822,65
>10 eta ≤ 50	161	2.636.243,53
>50 eta ≤ 100	45,	1.076.703,44
>100 eta ≤ 250	42	527.812,34
>250 eta ≤ 500	28	682.285,99
>500 eta ≤ 1000	17	100.477,61
>1000 eta ≤ 2000	7	94.345,30
> 2000	6	16.546,32
DATURIK GABE	44	312.907,42
GUZTIRA	435	6.027.144,60


ISTRIPUEN KOSTUA, PLANTILLAREN ARABERA





KONTRATU MOTA	ISTRIPU KOP.	KOSTU OSOA
100.. Lan. osoko mugag.	217	3.643.138,20
200.. Lan. partzial. mugag.	2	2.750,74
300.. Aldizk. mugag. finkoak	3	22.177,62
400.. Lan. osoko aldi baterakoak	166	2.333.028,56
500.. Lan. partzialeko aldi baterakoak	8	6.069,80
ED/EE	39	19.979,68
GUZTIRA	435	6.027.144,60

ISTRIPUEN KOSTUA, KONTRATU-MOTAREN ARABERA






- Kalte materialetan konponketa-gastuak (bai eraikin eta instalazioenak, bai makineria, lan-tresna eta ekipoenak) eta lehengaien eta ekoizpen galerak sartzen dira. Lan-istripu bakoitzeko 5.960,18 eurokoak izan dira, batzaz beste. Istripu larri eta oso larriak eta heriotza eragindakoak bereizten baditugu, batzaz bestekoa 3.636,50 eurokoa eta 16.001,82 eurokoa izan da, hurrenez hurren. Azkenik, lurralde historikoen arabera bereiztuz gero, istripu bakoitzeko kalte materialen kostua hauxe izan da:

KALTE MATERIALEN KOSTUA, ISTRIPU BAKOITZEKO		
	Larria eta oso larria	Heriotza eragindakoa
Araba	1.382,08 euro	1.103,50 euro
Bizkaia	3.187,59 euro	16.103,49 euro
Gipuzkoa	5.424,73 euro	24.026,50 euro
GUZTIRA	3.636,50 euro	16.001,82 euro

KALTE MATERIALES KOSTUA, LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA






- Kalte materialen kostua Euskadin 2003an izandako istripuen guztizkora estrapolatuz gero, ondorengo datuak lortuko ditugu:

LURRALDE HKO.	ISTRIPU KOP.	LESIO-MAILA	KALTE MATERIALEN KOSTUA
Araba	67	Larria eta oso larria	92.599,40
GUZTIRA	7	Heriotza eragindakoa	7.724,50
Bizkaia	74	Larria eta oso larria	100.323,90
Bizkaia	182	Larria eta oso larria	580.141,41
GUZTIRA	31	Heriotza eragindakoa	499.208,05
Gipuzkoa	213	Larria eta oso larria	1.079.349,46
Gipuzkoa	125	Larria eta oso larria	678.091,18
GUZTIRA	23	Heriotza eragindakoa	552.609,48
Larriak eta oso larriak, guztira	148		1.230.700,66
Heriotza eragin dutenak, guztira	374		1.350.831,99
Heriotza eragin dutenak, guztira	61		1.059.542,03
GUZTIRA	435		2.410.374,02

KALTE MATERIALEN KOSTUA






- Istripua izan ondoren, berau berriro ez gertatzeko enpresek ezarritako neurrien kostuari dagokionez, edo bestela esanda, Prebentzio Kostuei dagokienez, enpresa bakoitzeko 865,07 eurokoa izan da. Istripu larri eta oso larrien Prebentzio Kostuak 512,64 eurokoak izan dira, enpresa bakoitzeko. Heriotza eragin dutenen kostua, berriz, 2.388,11 eurokoa izan da.

LURRALDE HKO.	ISTRIPU KOP.	LESIO-MAILA	BATAZ BESTEKOA PREBENTZIO KOSTUA
Araba	17	Larria eta oso larria	212,82
	6	Heriotza eragindakoa	148,17
GUZTIRA	23		195,95
Bizkaia	66	Larria eta oso larria	644,17
	11	Heriotza eragindakoa	5.573,74
GUZTIRA	77		1.348,40
Gipuzkoa	38	Grave y Muy Grave	418,31
	11	Mortal	424,27
GUZTIRA	49		419,65
GUZTIRA	149		865,07
	121	Larriak eta oso larriak, guztira	512,64
	28	Heriotza eragin dutenak, guztira.	2.388,11

PREBENTZIO-NEURRIEN BATAZ BESTEKO KOSTUA






- Lorturiko datuak estrapolatu ondoren, ondorengo taulan jaso ditugu lan-istripuak berriro gerta ez daitezen enpresek ezarritako prebentzio-neurrien kostuak:

LURRALDE HKO.	ISTRIPU KOP.	LESIO-MAILA	PREBENTZIO KOSTUA
Araba	67	Larria eta oso larria	14.258,90
	7	Heriotza eragindakoa	1.037,17
GUZTIRA	74		15.296,07
Bizkaia	182	Larria eta oso larria	117.239,22
	31	Heriotza eragindakoa	172.785,97
GUZTIRA	213		290.025,18
Gipuzkoa	125	Larria eta oso larria	52.288,68
	23	Heriotza eragindakoa	9.758,29
GUZTIRA	148		62.046,98
Larriak eta oso larriak, guztira	374		183.786,80
Heriotza eragin dutenak, guztira	61		183.581,43
GUZTIRA	435		367.368,23

PREBENTZIO-KOSTUAK



2003. urtean, EAEn izandako lan-istripuetan, guztira, 105 langile hil ziren. 2002. urtean izandako hildako kopuru berbera da. Gainerako istripuei dagokienez, aldiz, 2003an larriak eta oso larriak gutxitu egin ziren, aurreko urtearekiko % 10 baino gehiago gutxitu ere. Guztira mota horretako 525 istripu gertatu ziren. Azkenik, istripu arinak % 4,29 gutxitu ziren 2002ko urteko datuen aldean, guztira 53.191 istripu izan zirelarik.

I. Eranskina

Kodifikazioak



KONTRATUEN KODIFIKAZIOA

- 100... Lanaldi osoko kontratu mugagabea
- 200... Lanaldi partzialeko kontratu mugagabea
- 300... Aldizkako kontratu mugagabe finakoak
- 400... Iraupen jakineko kontratuak edo lanaldi osoko aldi baterakoak
- 500... Iraupen jakineko kontratuak edo lanaldi partzialeko aldi baterakoak

LANGILEEN LANBIDEEN KODIFIKAZIOA

- 10..17 Enpresen administrazioa eta Administrazio Publikoa
- 20..29 Teknikari eta profesional zientifiko eta intelektualek
- 30..35 Teknikari eta profesional laguntzaileak
- 40..46 Administrazio-lanetan diharduten bestelako enplegatuak
- 50..53 Ostalaritzako zerbitzuak, zerbitzu pertsonaletako, babes-zerbitzuak eta merkataritzako saltzaileak.
- 60..63 Nekazaritzako eta arrantzako langile gaituak
- 70..79 Artisauak eta manufaktura industriako, eraikuntzako eta meatzaritzako langile gaituak
- 80..86 Instalazio eta makinetako langileak, muntatzaileak
- 90..98 Gaitu gabeko langileak

ENPRESA-JARDUERAREN KODIFIKAZIOAK (CNAE)

- A Nekazaritza, abeltzaintza, ehiza eta oihasaintza
- B Arrantza
- CB Erauzketa-industriak. Beste mineral batzuen erauzketa, energia produktuak izan ezik
- DA Manufaktura-industria. elikagaigintza, edariak eta tabakoa
- DD Manufaktura-industria. Zuraren eta kortxoaren industria
- DE Manufaktura-industria. Papergintza, edizioa, arte grafikoak eta grabatutako euskarrien erreproduktzioa
- DG Manufaktura-industria. Industria kimikoa
- DH Manufaktura-industria. Kautxuaren eta plastikozko gaien eraldakuntza
- DI Manufaktura-industria. Metalikoak ez diren bestelako produktu mineralen industriak
- DJ Manufaktura-industria. Metalurgia eta metalezko produktuen fabrikazioa
- DK Manufaktura-industria. Makineriaren eta ekipo mekanikoaren eraikuntza industria
- DL Manufaktura-industria. Material eta ekipo elektrikoaren, elektronikoaren eta optikoaren industria
- DM Manufaktura-industria. Garraio materialaren fabrikazioa
- DN Manufaktura-industria. Zenbait manufaktura industria
- E Energia elektrikoaren, gasaren eta uraren ekoizpena eta banaketa
- F Eraikuntza
- G Merkataritza, motoredun ibilgailu, motozikleta eta ziklomotoreen konponketa eta artikulu pertsonalak eta etxerako artikuluak
- H Ostalaritza
- I Garraioa, biltegiratzea eta komunikazioak
- K Higiezin-etxe eta alogera-etxeen jarduerak eta alokairuak; enpresa-zerbitzuak
- L Administrazio publikoa, Defentsa eta Derrigorrezko Gizarte Segurantzak
- M Hezkuntza
- N Osasun eta albaitaritza jarduerak, Gizarte zerbitzuak
- O Bestelako gizarte jarduerak eta komunitateari emandako zerbitzuak; zerbitzu pertsonalak
- P Etxeko langileak dituzten etxeak.

II. Eranskina

Lan istripuen kostua
ebaluatzeke prozedura



GERTAKARIARI BURUZKO DATUAK

Langilearen izena:

Enpresaren izena:

Data:

Baja-egunak:

Istripuaren ondorioz ezintasun iraunkorrik egon al da?

BAI ☐ EZ ☐

Ezintasun mota:

LANGILE KOSTUA

1. Kolpatuak galdutako lanorduak
(istripuaren egunean)

Orduak	Orduen kostua	Guztira

2. Beste lagun batzuk galdutako lanorduak
(istripuaren egunean)

- 1. lanpostua:
- 2. lanpostua:
- 3. lanpostua:
- 4. lanpostua:
- 5. lanpostua:

Orduak	Orduen kostua	Guztira

3. Arduradunek eta teknikariek galdutako lanorduak
(istripuaren egunean)

- 1. lanpostua:
- 2. lanpostua:
- 3. lanpostua:
- 4. lanpostua:
- 5. lanpostua:

Orduak	Orduen kostua	Guztira

4. Arduradunek, teknikariek, prebentzio-ordezkariek e.a. galdutako lanorduak
(istripuaren ondoko egunetan)

- 1. lanpostua:
- 2. lanpostua:
- 3. lanpostua:
- 4. lanpostua:
- 5. lanpostua:

Orduak	Orduen kostua	Guztira

5. Borondatezko hobekuntzak Aldi Baterako Ezintasunarengatik
ematen den prestaziorako

Egunak	Eguneko zenbatekoa	Guztira

6. Gizarte-Segurantzarako Kotizazioak (enpresaren aldetik)

Egunak	Eguneko zenbatekoa	Guztira

**KALTE MATERIALEN KOSTUA**

7. -Eraikinak eta instalakuntzak

-Barne Zerbitzuak egindako konponketa

Orduak

Orduen kostua

Guztira

-Materialak

-Kanpoko Zerbitzuak egindako konponketa

8. Tresneria, erremintak eta lan-ekipoak

-Barne Zerbitzuak egindako konponketa

Orduak

Orduen kostua

Guztira

-Materialak

-Lan-ekipoen alokairu edo erosketa

-Kanpoko Zerbitzuak egindako konponketa

9. Lehengaiak, bukatutako produktuak edo erdi eraldatuak

-Unitateko kostua x Kaltetutako unitate-kop.

Guztira

10. Galerak ekoizpenean

-Aurreikusitako ekoizpena- ekoizpen erreala

Guztira

11. Kostuen gehikuntza ekoizpena mantentzeko

-Aparteko orduak

-Ordezkapena egiten duenaren kontratazio eta prestakuntza

-Lan eta zerbitzuen kontratazioa eta azpi kontratazioa

-Bestelako kostuak

Guztira

PREBENTZIOAREN KOSTUAK

12. Istripua berriz ez gertatzeko ezarritako neurrien kostua

BESTE KOSTU BATZUK

13. Administrazio Erantzukizuna: zehapenen zenbatekoa

14. Gizarte-Segurantzaren arloko erantzukizuna: prestazioen gainordainak

15. Erantzukizun zibila: Enpresak zuzenean ordaindutako kalte-ordainak

16. Defentsa Juridikoaren kostua (abokatuak, adituak, e.a.)

17. Beste Kostu batzuk

OHARRAK (*)

(*) Atal honetan aipatuko ditugu azken erabakiaren zain dauden ekintzak, zenbatu dezakegun kostua ezagutzen ez dugulako (erabakitzeke dauden epaiak, errekursoak, epaiketak, e.a.).

KOSTU OSOAK

III. Eranskina

Argibide-orria



GERTAKARIARI BURUZKO DATUAK

Baja-egunak: Istripuaren ondoren, egoera normaldu arte lanerako ezintasuna egon den egun-kopurua beteko da.

Ez da kontutan izango istripuaren eguna bera.

Bajaren iraupena, istriputuak Medikuen Alta hartu ondoren beteko da.

Istripuaren ondorioz ezintasun iraunkorrik egon al da? BAI ala EZ erantzun beharko da, LEIaz geroztik, maila batean ezintasun iragankorrik egon bada eta berau jakin arazi baldin bada.

Ondoren, ezintasun mota azalduko da.

LANGILE-KOSTUA

1. Kolpatuak galdutako lanorduak (istripuaren egunean):

Lanordu horien kostu ekonomikoa kalkulatzeko, honako kontzeptu hauek biderkatuko dira:

- Galdutako Lanorduen kopurua (hau da, lanik egin gabeko orduena)
- Lanorduen kostua; honako formula hau erabiliz kalkulatzeko da:

$\frac{\text{Urteko Soldata Gordina} + \text{Urteko Gizarte Segurantzak}}{\text{Urtean egindako lanorduak}}$
--

2. Beste lagun batzuk galdutako lanorduak (istripuaren egunean):

Kolpatuak galdutako lanorduak kalkulatzeko erabili den modu berean -aurreko puntuan azaldu den bezala- kalkulatu da, baina istripuak zeharkako eran eragin duen langile bakoitzeko, istriputik gertu egoteagatik, istriputuaren adiskidea izateagatik, laguntza emateagatik, edo beste arrazoiengatik.

Orduen kostua langile bakoitzeko kalkulatu da, aparteko eran, espezializazio-mailaren arabera orduen kostua ezberdina izango baita.

Inprimakian bost lanpostu aipatzen badira ere, behar direnak gehi daitezke.

3. Arduradunek eta teknikariek galdutako lanorduak (istripuaren egunean):

Aurreko puntuetan azaldu bezala kalkulatu da, baina arduradunek eta teknikariek erabili duten denborari dagokion kostua kalkulatu da, hain zuzen.

Kolpatuari emandako laguntza, ekoizpen-prozesuaren berrantolaketa, istripuaren berehalako ikerketa, e.a. sar daitezke.



4. Arduradunek, teknikariek, prebentzio-ordezkariek e.a. galdutako lanorduak (istripuaren ondoko egunetan).

1. puntuan azaldutako modu berean kalkulatu da, baina istripuaren ondoko egunetan istripuaren ondorioz erabilitako denbora azaldu beharko da.

Atal honetan sartuko dira istripuaren ikerketa, eskumena duten erakundeek egindako ikuskapenak, lanaren berrantolaketa, epaitegietara joateko denbora, e.a.

5. Borondatezko hobekuntzak Aldi Baterako Ezintasunarengatik ematen den prestaziorako:

Erakunde kudeatzaileek edo Gizarte Segurantzarekin lankidetzan diharduten Erakundeek lan-istripuak geratzekotan ordaindutako prestazio ekonomikoak, arautzeko oinarriaren %75a betetzen dute. Gerta daiteke, hainbat Hitzarmen Kolektiboren ondorioz, enpresak langilearen soldataren zati bat edo soldata osoa ematea; horrek kostu handiagoa ekarriko lioke enpresari.

Kostu hori honela baloratzen da:

$$\text{ABEren egun-kopurua} \times \text{hobekuntzaren eguneko zenbatekoa}$$

6. Gizarte-Segurantzarako Kotizazioak (enpresaren aldetik):

Gizarte-Segurantzarako Kotizazioa ez da eteten langileak Aldi Baterako Ezintasuna duen bitartean.

Garrantzitsua da gogoratzea istripuaren eguna ez dela kontutan hartu behar.

Kostu hau honela baloratzen da:

$$\text{ABEren egun-kopurua} \times \text{GSrako kotizazioaren eguneko zenbatekoa}$$

KALTE MATERIALEN KOSTUA

7. Eraikinak eta instalakuntzak:

- Barne-Zerbitzuak egindako konponketa: Konponketa enpresako Barne-Zerbitzuak egiten badu, kostua kalkulatzeko erabilitako ordu-kopurua orduaren kostuaz biderkatu beharko litzateke (1. atalean azaltzen den formulari jarraiki).
- Konponketetarako erabilitako materialak: materialen kostuan, kalte materiala konpontzeko ordaindu ditugun fakturen zenbatekoa sartuko dugu.
- Kanpoko Zerbitzuak egindako konponketa: konponketa enpresatik Kanpoko Zerbitzu batek egiten badu, Kanpoko Zerbitzu horrek jaulkitako fakturengatik ordaindutako zenbatekoa izango da kostua. Kontutan izan behar da aseguruak babesten dituzten kalteak ez direla zenbatu behar.



8. Tresneria, erremintak eta lan-ekipoak:

- Barne-Zerbitzuak egindako konponketa: Konponketa enpresako Barne-Zerbitzuak egiten badu, kostua kalkulatzeko erabilitako ordu-kopurua orduaren kostuaz biderkatu beharko litzateke (1. atalean azaltzen den formulari jarraiki).
- Konponketetarako erabilitako materialak: materialen kostuan, kalte materiala konpontzeko ordaindu ditugun fakturen zenbatekoa sartuko dugu.
- Lan-ekipoen alokairu edo erosketa: Tresneriaren, erreminten edo lan-ekipoen alokairu edo erosketari dagozkion fakturen zenbatekoa sartuko da.
- Kanpoko Zerbitzuak egindako konponketa: konponketa enpresatik Kanpoko Zerbitzu batek egiten badu, Kanpoko Zerbitzu horrek jaulkitako fakturengatik ordaindutako zenbatekoa izango da kostua. Kontutan izan behar da aseguruak babesten dituzten kalteak ez direla zenbatu behar.

9. Lehengaiak, bukatutako produktuak edo erdi eraldatuak:

Enpresek, istripua dela eta, ekoizpen prozesuan kaltetutako produktuak edo lehengaiak izan ditzakete. Kalte horrek ekartzen duen kostua kalkulatzeko, honako formula hau erabiliko genuke:

Unitateko kostua x Kaltetutako unitate-kop.

Lehengaien kasuan, unitateko kostua kalkulatzeko fakturaren zenbatekoa kontutan izan behar da eta garraio-kostua, aduana-kostua, aseguruak, zergak e.a. gehitu behar zaizkio (eskurapen-prezioa, hain zuzen).

Bukatutako edo erdi eraldatutako produktuen kasuan, unitateko kostua enpresa bakoitzaren iritzia jarraiki kalkulatu litzateke, balorazio ekonomikorako metodo anitzak daudelako.

10. Galerak ekoizpenean:

Aurreikusi eta lortu ez den ekoizpena kontutan izan behar da kalkulatzeko, enpresak espero zituen etekinak murriztu baitira.

Atal honetan ezarri beharreko formula hau izango litzateke:

Aurreikusitako Ekoizpena - Ekoizpen Errealak

11. Kostuen gehikuntza ekoizpena mantentzeko:

Ekoizpena maila berean mantentzeko, enpresak eutsi behar duen gehigarritzko kostu ekonomikoa da.

- Aparteko orduak: Kalkulatzeko, erabilitako orduak, orduen kostuaz biderkatu behar dira, 1. atalean azaltzen den moduan kalkulaturik.

- Ordezkapena egiten duenaren Kontratazio eta Prestakuntza: Atal honetan sartzen da istripituaren ordeztasun pertsona, enpresak kontratatua, kolpatuaren lana egin dezan. Kostua kalkulatzeko kontutan izan behar dugu egindako lanorduen kopurua, orduen kostuaz biderkatua; horri gehitu behar dizkiogu langilea hautatzeko gastuak (egotekotan) eta ordezkapena egiten duen langilea prestatzeko gastuak.



- Lan eta zerbitzuen kontratazioa eta azpi kontratazioa: Lan bat egiteko eta zerbitzu zehatz bat emateko egiten den kontratazioaren edo azpi kontratazioaren kostu ekonomikoa da. Fakturen zenbatekoa kostuen artean sartuko genuke.

- Bestelako kostuak: Aurreko ataletan kontutan hartu ez diren kostuak sartuko lirateke, enpresarako kostuak izan badira.

PREBENTZIOAREN KOSTUAK

12. Istripua berriz ez gertatzeko ezarritako neurrien kostua:

Istripua berriz ez gertatzeko enpresak ezarri behar dituen dispositiboak, mekanismoak, babesak, prestakuntzak eta behar diren neurri guztiak sartuko lirateke.

Sartu beharreko kostua ezarritako neurriaren menpe egongo litzateke; dispositiboak, mekanismoak, babesak, e.a. izatekotan, fakturen zenbatekoa izango litzateke, instalatzeko behar den lan eskuaren salneurria gehituta.

Prestakuntzaren kasuan, erabilitako ordu-kopurua irakaslearen lanorduko salneurriaz biderkatu behar da kostua kalkulatzeko. Horri gehitu behar zaio prebentzioaren arloko prestakuntza hori lortzeko langileek erabili duten denbora (erabilitako ordu kop. X orduaren kostua).

BESTE KOSTU BATZUK

13. Administrazio-Erantzukizuna: zehapenen zenbatekoa

Istripu bat ikertzearen ondorioz zehapenak egon daitezke, enpresaren erruduntasunaren eta istripuaren larritasunaren arabera. Hori dela eta, atal honetan sartuko dugu enpresak, administrazio-erantzukizunik izatekotan, izan dezakeen kostua.

- Administrazio-zehapenak
- Lana geldiaraztea
- Lantokiaren etenaldia edo itxiera
- Administrazioarekin kontratuak izateko gaitasuna mugatzea.

14. Gizarte-Segurantzaren arloko erantzukizuna: prestazioen gainordainak

Gizarte-Segurantzak, lan-istripua edo lanbide-gaixotasuna enpresaren aldetik seguritate-neurririk ez egoteagatik gertatu dela antzematen badu, prestazio ekonomikoetan gainordain bat ezar dezake.

Halaber, lan-istripuengatik eta lanbide-gaixotasunengatik dauden kotizazio-sariak gehitu edo murriztu ditzake.

15. Erantzukizun zibila: Enpresak zuzenean ordaindutako kalte-ordainak

Enpresa erantzule zibila izan daiteke eta, horregatik, kontratuaren betebeharrak ez betetzeagatik edo delitu baten erantzule gisa, kalte-ordain ekonomiko bat ordaindu beharra izan dezake.



16. Defentsa Juridikoaren kostua (abokatuak, adituak, e.a.)

Profesionalek, abokatuek, adituek, auziek, prokuradoreek e.a. sortutako zerbitzu-sarien kostua sartuko da.

17. Beste Kostu batzuk

- Kolpatuaren desplazamenduak eta lekualdaketak , anbulantzien edo taxien gastuak, e.a.
- Medikuntza Zerbitzuaren osasun-materialaren gastuak.
- Garbiketarako ohiz kanpoko gastuak.
- Galerak irudian eta merkatuan (kuantifikatu gaitzak)
- Zigorak atzerapenengatik: bezeroek enpresan zeukaten konfidantza gal dezakete eta erreklamazioak egon daitezke kontratuak betetzen ez badira.
- Enpresako langileek protesta egiteko etenaldiak eta grebak eta, ondorioz, kostuak egon daitezkeen lan-gatazkengatik.
- Istripua izan duen langilearen ordeztaritzen den pertsonaren errendimendu txikiagoaren balorazioa.
- Kolpatuak, lanpostura bueltatzen denean, izan dezakeen errendimendu txikiagoaren balorazioa.
- Energia galtzea istripuaren ondorioz: erregaia, baporea, gasa, ura, elektrizitatea...
- Lehenengo sendaketa egiten duenak galdutako denbora (aseguru batek babesten ez duenean).
- Sartzen ez diren beste gastuak, enpresak garrantzitsutzat hartzen baditu.

OHARRAK

Atal honetan aipatuko ditugu azken erabakiaren zain dauden ekintzak, zenbatu dezakegun kostua eza gutzen ez dugulako (erabakitzeke dauden epaiak, errekursoak, epaiketak, e.a.).